



EUSKADIKO MEXIKOKO ORDEZKARITZAKO ENPRESA-ARDURADUN LANPOSTUA BETETZEKO HAUTAKETA-PROZESUARI BURUZKO DEIALDIAREN ZUZENKETA.

1.1 Nazionalitatea

Deialdi honetako 3.2 puntua, probetara izangaia onartzeko baldintzei buruzkoa, aldatu egiten da, nazionalitate gehiagoko izangaiei sarbidea errazteko eta honela geratuko da:

Mexikoko edo Europar Batasuneko estatu kide bateko nazionalitatea izatea.

Goi mailako unibertsitate titulua izatea hurrengo ezagutza eremuetan: Abokatutza, Enpresen administrazioa, Ekonomia, Industria ingeniarietza edo baliokidea, Kanpo merkataritza, Zientzia politikoa, Nazioarteko harremanak, Ekonomia eta enpresarekin lotutako beste ikasketak.

Bost urteko esperientzia izatea, gutxienez ere, lanpostuarekin lotutako eginkizunetan (erakunde publikoetan, publiko-pribatuetan edo pribatuetan).

Ingelesa eta gaztelania menderatzea (ahozkoa zein idatzizkoa).